



**EBAZPENA, 2025EKO APIRILAREN 29KOA, KULTURA SUSTATZEKO ETA KULTURA ETA SORMEN
INDUSTRIETAKO ZUZENDARIARENA, MUSIKA JARDUERA PROFESIONALETARAKO
DIRULAGUNTZEN DEIALDIRAKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEN DUENA.**

2025eko martxoaren 28an argitaratu zen EHAAn Jaurlaritzaren Lehen Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren martxoaren 18ko Agindua, musika-jarduera profesionaletarako 2025eko ekitaldirako dirulaguntzak emateko deialdia egin eta araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 7.1 artikularekin bat etorriz, deialdi horretako eskabideak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 29an amaituko da. Hala ere, apirilaren 28an eta 29an, laguntzak kudeatzeko sistema informatikoaren ohiko funtzionamenduari eragin dioten gorabehera teknikoen berri eman da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikularekin bat etorriz, eta kontuan hartuta izapidetze telematikoaren nahitaezotasuna ezarri dela, erabaki behar da gorabeherak ebazteko behar den epea luzatzea, eta, ebatzi ondoren, eragindakoez eskabidea erregistratu eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ahal izatea.

Beraz, 2025eko martxoaren 28ko Aginduaren 9. artikularen arabera, Deialdiaren kudeaketa-organoaren arduradun gisa,

EBATZI DUT:

1.- Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren martxoaren 18ko Aginduaren 7.1. artikuluan eskabideak aurkezteko ezarritako epea 2025eko maiatzaren 2ko 24:00ak arte luzatzea.

2.- Ebazpen hau 'euskadi.eus' egoitza elektronikoan argitara dadila agintzea.

sinadura elektronikoaren egunean,

Sinatuta: Ana López Asensio;

Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendaria.